



Olaztiko Udala, 2015



2017ko ekaina



CÁMARA DE
COMPTOS
DE NAVARRA
NAFARROAKO
KONTUEN
GANBERA



AURKIBIDEA

ORRIALDEA

I. SARRERA.....	3
II. UDALAREN 2015EKO KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA	6
II.1. Finantza-auditoretzari buruzko iritzia	7
II.2. Legezketasuna betetzeari buruzko iritzia	7
III. UDALAREN 2015EKO KONTU OROKOR BATERATUAREN LABURPENA	8
III.1. Udalaren eta musika eskolaren 2015eko aurrekontuaren betetze bateratuaren egoera-orria.	8
III.2. Udalaren eta musika eskolaren 2015eko aurrekontuaren emaitza bateratua	9
III.3. Udalaren eta musika eskolaren emaitza ekonomiko bateratua 2015eko abenduaren 31n	9
III.4. Udalaren eta musika eskolaren diruzaintza-gerakin bateratuaren egoera-orria 2015eko abenduaren 31n ...	10
III.5. Udalaren eta musika eskolaren egoera-balantze bateratua 2015eko abenduaren 31n	11
III.6. Erburua Olazti, SL sozietatearen ekitaldiko emaitza 2015eko abenduaren 31n	12
III.7. Erburua Olazti, SL sozietatearen egoera-balantzea 2015eko abenduaren 31n	13
IV. IRITZIAN ERAGINIK EZ DUTEN OHARPENAK ETA GOMENDIOAK	14
IV.1. Udalaren eta haren erakunde autonomoaren ekonomia- eta finantza-egoera	14
IV.2. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuak betetzea	16
IV.3. Alderdi orokorrak	18
IV.4. Udaleko eta haren erakunde autonomoko langileak	19
IV.5. Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	20
IV.6. Zorra. Zorraren finantza-karga	24
IV.7. Gastuak transferentzia arruntengatik	25
IV.8. Inbertsioak	26
IV.9. Udal zergak	27
IV.10. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	28
IV.11. Transferentziengatiko diru-sarrerak	29
IV.12. Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-aprobetxamenduak	30
IV.13. Erburua Olazti, SL udal sozietatea	30
IV.14. Hirigintza	31





I. Sarrera

2016ko apirilaren 11n, Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen Batzordeak hitzartu zuen, Unión del Pueblo Navarro parlamentuko taldearen eskariz, Kontuen Ganberari eskatzea Olaztiko Udalaren fiskalizazio txosten bat, 2011tik 2015erako ekitaldietakoa. Eskari hori aintzat hartu zen, eta 2016rako laneko programan sartu zen 2015eko ekitaldiko Olaztiko Udalaren ekonomia- eta finantza-kudeaketaren fiskalizazioa, alde batera utzirik aurreko ekitaldietako kudeaketa-alderdiak aztertzea, besteak beste, gastu juridikoei eta auzi-kontuetakoei eta berdintasun arloko aholkularitzakoei zegozkienak.

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2016rako jarduketa programari jarraituz, Olaztiko Udalaren eta “musika eskola” erakunde autonomoaren 2015eko ekitaldiko urteko kontu orokorra fiskalizatu du. Kontu orokor hori, funtsean, hauek osatuta dago: aurrekontuaren likidazio-espeditentea, barnean hartuta aurrekontuaren emaitza, ekonomia- eta ondare-egoeraren eta finantzetakoaren espeditentea, emaitza ekonomikoarekin eta balantzearekin eta eranskinekin, besteak beste, diruzaintzako egoera-orria eta zorraren egoera-orria.

Gure azterlanak, era berean, barnean hartu ditu Erburua Olazti, SL udal sozietatearen kontuak. Zehazki, 2015eko abenduaren 31ko egoeraren balantzeak, emaitzen kontuak eta oroitidazkiak osatzen dituzte.

Urteko kontuen finantza-auditoretzarekin batera, legezotasuna betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzia eman ahal izateko: ea ekitaldian zehar egindako jarduerak, aurrekontuko eragiketak eta finantzetakoak eta 2015eko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoak kudeatzeari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Udalaren, musika eskolaren eta Erburua Olazti, SL udal sozietatearen 2014ko kontu orokorra ez da ikuskatu. Ekitaldi horri dagokion informazioa, txosten honetan ageri dena, informazioa emateko baino ez da aurkeztu.

Olaztiko Udalerriak 2015eko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparrua, funtsean, hauek osatuta dago: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea, eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoa, bai eta sektoreka indarrean dagoen araudia ere.

Olaztiko udalerriak 19.617 km² dauzka, eta 2015eko urtarrilaren 1ean 1.520 biztanle zituen.





Udalak erakunde autonomoa sortu zuen musika eskola kudeatzeko eta Erburua Olazti, SL udal sozietatea udal zerbitzuak emateko, bereziki, kirol instalazioetakoak.

2015eko ekitaldia ixtean, Udalaren eta haren mendeko erakundeen datu ekonomiko eta langileen datu nagusiak hauek ziren:

	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Lanpostuak (plantilla)
Udala	2.190.489	1.819.076	17
Musika eskola erakunde autonoma	30.476	30.480	4
Erburua Olazti, SL	178.777	186.440	3

Olazti erakunde hauetako kidea da:


- Sakanako Mankomunitatea, uraren eta hiri hondakinen, kirolen eta euskararen zerbitzuak emateko.
- Altsasuko, Olaztiko eta Ziordiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.
- Sakana Garatzeko Agentzia.
- Cederna-Garalur

Ondoko taulan ageri dira ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua:

Zerbitzua	Udala	Erakunde autonomoa	Mankomunitatea Partzuergoa	Udal sozietatea
Administrazio zerbitzu orokorrak	X			
Argiteria publikoa	X			
Hilerria	X			
Guneetarako sarbideak, zolatzea	X			
Ur hornidura				X
Hiri hondakinak				X
Kale-pazetako garbiketa	X			
Musika eskola		X		
Gizarte zerbitzuak				X
Liburutegia	X			
Ludoteka	X			
Kulturgunea	X			
Turismoa eta eskualdearen garapena				X
Hirigintza	X			
Kirol instalazioak	X			X

Txostena lau ataletan banatuta dago, sarrera hau barnean hartuta. Bigarren atalean, Udalaren kontu orokorrari buruzko iritzia eman dugu. Hirugarrenean, Udalaren eta haren mendeko erakundeen egoera-orri nagusien laburpena jaso dugu. Azkenik, laugarrenean, gure iritzian eraginik ez duten alderdiei buruzko oharpenak bildu ditugu, eta bai Udalaren antolaketa eta barne kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioak ere.





Landa-lana 2017ko urtarril eta martxo artean egin zuen auditoriako bi teknikarrik eta auditore batek eraturako lantaldeak, Kontuen Ganberako zerbitzu juridikoen, informatikakoen eta administraziokoen laguntzarekin.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertu nahi diegu Olaztiko Udaleko langileei.

Kontuen Ganberak arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikulua aurreikusitakoaren arabera, lan honen emaitza honako kargudunoi ezagutarazi zitzaizen, alegazioak aurkez zitzaizaten:

- Olaztiko alkate ohia
- Olaztiko alkatea

Bietako inork ez du alegaziorik egin Kontuen Ganberak zehazturiko epean.





II. Udalaren 2015eko kontu orokorrari buruzko iritzia

Olaztiko Udalaren 2015eko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitateko egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako III. atalean.

Udalaren erantzukizuna

Kontu-hartzailletza da kontu orokorra osatzeko erantzukizuna duena. Izan ere, Udalaren aurrekontuaren likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera leialki irudikatzeko moduan egin behar du, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruekin bat eginez. Erantzukizun horrek barnean hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzeptzioa, ezarpena eta mantentzea.

Olaztiko Udaleko osoko bilkurak 2016ko irailaren 13an onartu zituen behin betiko 2015eko kontuak.

Udalak, urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizuna izateaz gainera, bermatu behar du urteko kontuetan jasotako jarduerak, aurrekontuko eta finantzetako eragiketak, eta informazioa bat datozela aplikatzekoak diren arau-ekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontroleko sistemak ezarri behar ditu.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorren fidagarritasunari eta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz, gure fiskalizazioan oinarrituta. Horretarako, erantzukizun hori bete dugu kanpo kontroleko erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarrizko printzipioen arabera. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, helburu honekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzetako egoera-orrietan jasotako jarduerak, finantza-eragiketak eta informazioa, alde adierazgarri guztietan, bat etortzea indarrean dagoen araudiarekin.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplikatzea auditoretza-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren edo akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan (erakundeak kontu orokorrak egin





ditzan garrantzitsua baita) inguruabarren araberako auditoretza-prozedura ego-kiak diseinatzeko, eta ez erakundearen barne kontrolaren eraginkortasunari bu-ruzko iritzia emateko helburuarekin. Auditoretza batek barnean biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egin-dako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta kontu orokorren aur-kezpena ere, oro har.

Lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri ego-kiak jasotzen duela uste dugu, gure fiskalizazio-iritzia emateko.

Fiskalizazioaren emaitzatik **iritzi** hau eratorri da.

II.1. Finantza-auditoretzari buruzko iritzia

Iritziaren oinarria, salbuespenekin

Udalak eta musika eskolak ez dute behar bezala identifikatutako eta balora-tutako ondasunen inbentariarik. Horrenbestez, ezin izan dugu egiaztatu balan-tzeko ibilgetuaren saldoaren arrazoizkotasuna, 13.138.452 eurotan kuantifika-tua.

Iritzia

Gure iritzian, “Iritziaren oinarria, salbuespenekin” paragrafoan azaldutako egitatearen balizko eraginengatik ez bada, Udalaren, musika eskolaren eta Er-burua Olazti udal sozietatearen kontu orokorrek irudi zehatza erakusten dute alderdi adierazgarri guztietan, ondareari, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioari eta 2015eko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokionez. Hala-ber, ekonomia- eta aurrekontu-emaitzak erakusten dituzte, data horretan amai-tutako urteko ekitaldiari dagozkionak, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipioei eta irizpideei jarraituta betiere.

II.2. Legezatasuna betetzeari buruzko iritzia

Gure ustez, Udalaren, musika eskolaren eta Erburua Olazti udal sozietatea-ren 2015eko ekitaldiari buruzko finantzen egoera-orrietan jasotako jarduerak, finantzetako eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztie-tan, aplikatzekoak diren arauekin.





III. Udalaren 2015eko kontu orokor bateratuaren laburpena

Udalaren kontu orokor bateratuaren barnean sartutako kontabilitateko egoera-orrien laburpen bat aurkezten da atal honetan.

III.1. Udalaren eta musika eskolaren 2015eko aurrekontuaren betetze bateratuaren egoera-orria

Bateratua. Diru-sarrerak, kapitulu ekonomikoaren arabera

Kap.	Izendapena	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako eskubideak	Betetze portzentajea	Kobrantsak	Kobratzeko dagoena
1	Zuzeneko zergak	802.360	220.000	1.022.360	1.039.433	102	952.650	86.783
2	Zeharkako zergak	95.000	0	95.000	123.187	130	119.785	3.403
3	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	164.280	0	164.280	269.180	164	258.214	10.966
4	Transferentzia arruntak	484.030	0	484.030	473.697	98	455.795	17.052
5	Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri aprobetxamendua	287.930	0	287.930	262.443	91	262.438	5
6	Inbertsio errealak besterentzea	0	0	0	0		0	0
7	Kapitaleko transferentziak	26.610	0	26.610	37.057	139	28.866	8.191
8	Finantza-aktiboak	0	11.550	11.550	0		0	0
9	Finantza-pasiboak	0	0	0	0		0	0
	Guztira	1.860.210	231.550	2.091.760	2.204.997	105	2.077.748	126.219

Bateratua. Gastuak, kapitulu ekonomikoaren arabera

Kap.	Izendapena	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako betebeharrak	Betetze portzentajea	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena
1	Langile-gastuak	682.790	2.740	685.530	664.193	97	650.810	13.382
2	Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	531.580	209.610	741.190	622.984	84	602.139	20.845
3	Finantza-gastuak	6.570	0	6.570	3.872	59	3.613	259
4	Transferentzia	298.320	20.943	319.263	277.909	87	273.018	4.891
6	Inbertsio errealak	198.300	-1.743	196.557	122.006	62	114.395	7.611
7	Kapitaleko transferentziak	0	0	0	0		0	0
8	Finantza-aktiboak	0	0	0	0		0	0
9	Finantza-pasiboak	142.650		142.650	142.623	100	142.623	0
	Guztira	1.860.210	231.550	2.091.760	1.833.587	88	1.857.600	46.988





III.2. Udalaren eta musika eskolaren 2015eko aurrekontuaren emaitza bateratua

Izendapena	2015	2014
+ Aitortutako eskubide garbiak	2.204.996	1.962.841
- Aitortutako betebeharrak	1.833.587	1.749.884
= Aurrekontuaren emaitza	371.409	212.958
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	8.191	19.106
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	17.518	0
+ Diruzaintza-gerakinaren bidez finantzatutako gastuak	1.898	47.168
+ Merkataritzako eragiketen emaitza	0	0
= Aurrekontuaren emaitza doituia	382.634	241.020

III.3. Udalaren eta musika eskolaren emaitza ekonomiko bateratua 2015eko abenduaren 31n

Zor		2015	2014
80	Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	0	0
82	Ohiz kanpoko emaitzak (saldo zorduna)	259	0
83	Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	0	0
84	Itxitako aurrekontuen eskubideen eta betebeharraren aldaketak	68.194	64
89	Mozkin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	530.528	446.700
Guztira		598.981	446.764

Hartzeko		2015	2014
80	Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	598.981	446.764
82	Ohiz kanpoko emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
83	Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84	Itxitako aurrekontuen eskubideen eta betebeharraren aldaketak	0	0
89	Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	0	0
Guztira		598.981	446.764





III.4. Udalaren eta musika eskolaren diruzaintza-gerakin bateratuaren egoera-orria 2015eko abenduaren 31n

Izendapena	2015	2014	Aldaketa %
+ Kobratzeko dauden eskubideak	146.541	291.237	-50
+ Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	127.254	276.635	-54
+ Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	147.702	187.771	-21
+ Aurrekontutik kanpoko diru-sarrerak	3.632	4.433	-18
+ Gastuen itzulketak	1.030	57	1.720
- Bilketa zaileko eskubideak	133.078	177.657	-25
- Aplikatzeko dauden kobrantzak	0	0	
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	115.235	93.454	23
- Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	46.989	36.188	30
- Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	519	519	0
- Aurrekontutik kanpoko gastuak	66.651	56.706	18
- Diru-sarreraren itzulketak	1.077	41	2.501
+ Aplikatzeko dauden ordainketak	0	0	
+ Diruzaintzako funts likidoak	1.777.062	1.263.028	41
+ Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	17.518	0	
= Diruzaintza-gerakina, guztira	1.825.886	1.460.812	25
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	0	0	
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	493.074	493.074	0
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.332.813	967.738	38





III.5. Udalaren eta musika eskolaren egoera-balantze bateratua 2015eko abenduaren 31n

Aktiboa

	2015	2014
Ibilgetua	13.138.452	13.016.446
Ibilgetu materiala	8.788.455	8.765.780
Ibilgetu ez-materiala	437.070	434.045
Inbertsioak erabilera orokorrerako azpiegitura eta ondasunetan	3.139.373	3.101.703
Inbertsioak herri-ondasunetan	768.271	709.634
Finantza-ibilgetua	5.283	5.283
Zordunak	282.026	473.026
Zordunak gastuen itzulketengatik	1.030	57
Zordunak aitortutako eskubideengatik	274.957	464.406
Zordunak, beste EP batzuetako baliabideen aitortutako eskubideengatik	2.407	4.131
Aurrekontukoak ez diren beste zordun batzuk	3.632	4.433
Finantza-kontuak	1.777.062	1.263.028
Aktiboa, guztira	15.197.540	14.752.500

Pasiboa

	2015	2014
Ondarea eta erreserbak	11.397.857	10.951.157
Ondarea	12.508.861	12.062.161
(.) Erabilera orokorrerako emandako ondarea	-1.111.004	-1.111.004
Kapitaleko diru-laguntzak	2.346.651	2.309.594
Jasotako kapitaleko diru-laguntzak	2.346.651	2.309.594
Epe luzerako zorrak	804.841	947.464
Jasotako maileguak	804.841	947.464
Epe laburrerako zorrak	117.662	97.585
Hartzekodunak, aitortutako betebeharrangatik	47.507	36.706
Hartzekodunak, diru-sarreraren itzulketarengatik	1.077	41
EP, kobratu beharreko eskubideengatik	2.428	4.131
EP, likidatzeko dauden diru-sarrerengatik	150	130
Erakunde publikoak	25.902	19.761
Aurrekontukoak ez diren beste hartzekodun batzuk	40.598	36.815
Emaitzak	530.528	466.700
Ekitaldiko emaitzak (etekina)	530.528	466.700
Aurrekontu-kontrolako kontuak	0	3.139
Hurrengo ekitaldietako gastu konprometituak	0	3.139
Ordena-kontuak		
Abalak eta bermeak	165.731	0
Aurrekontu-kontrolako kontuak eta ordena-kontuak, guztira	165.731	3.139
Pasiboa, guztira	15.197.540	14.752.500





III.6. Erburua Olazti, SL sozietatearen ekitaldiko emaitza 2015eko abenduaren 31n

	2015	2014
622 Konponketa eta kontserbazioa	-15.359	-19.657
623 Zerbitzu prof. independenteak	-3.140	-2.985
624 Garraioak		-5
625 Aseguruen primak	-3.504	-3.383
626 Bankuko zerbitzuak eta antzekoak	-178	-76
627-Publizitatea eta propaganda		-55
628 Ura	-8.757	-10.534
628-Argia	-33.841	-32.623
629 Zaborra	-216	-216
629 Beste zerbitzu batzuk	-17.824	-7.572
629 Telefonoa	-909	-969
631-Beste zerga batzuk	-63	-63
640 Lansaria	-74.176	-71.547
642 Gizarte Segurantza enpresaren kontura	-24.611	-23.702
659 Beste galera batzuk kudeaketa arruntean		-150
681 Ibilgetu materialaren amortizazioa	-7.930	-5.386
Ekitaldiko emaitza arrunt negatiboa	-190.505	-178.922
705 Diru-sarrerak	53.730	49.901
740 Ustiapenerako diru-laguntzak	110.000	127.000
746 Kapitaleko diru-laguntza, ekitaldiko emaitzara transferitua	4.418	2.360
752 Alokairuko diru-sarrerak	7.798	9.071
759 Hainbat zerbitzutako diru-sarrerak	7.174	5.384
778 Ohiz kanpoko diru-sarrerak	75	3.524
Ekitaldiko emaitza arrunta	183.195	197.240
Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	-7.310	18.318





III.7. Erburua Olazti, SL sozietatearen egoera-balantzea 2015eko abenduaren 31n

Aktiboa		2015	2014
	Ibilgetu ez-materiala	0	708
206	Programa informatikoa	2.000	2.000
280	Amort. metatua programa informatikoa	-2.000	-1.292
	Ibilgetu materiala	34.055	37.412
213	Igerilekuko hondoa garbitzeko robota oclair pro	2.050	0
215	Instalazioak	36.439	36.439
216	Hainbat altzari	3.563	3.563
219	Spinning-eko bizikletak	3.735	1.920
281	Amort. metatua ibilgetu materiala	-11.732	-4.510
	Zordunak	4.891	12.540
430	Bezeroak	2.326	2.679
470	Ogasun Publikoa, zorduna BEZarengatik	2.252	9.588
473	Ogasun Publikoa, atxikipenak eta konturako ordainketak	313	274
	Finantza-kontuak	1.240	1.096
57	Diruzaintza	1.240	1.096
	Aktiboa, guztira	40.186	51.757

Pasiboa		2015	2014
	Funts berekiak	8.434	15.744
100	Kapital soziala	3.300	3.300
113	Borondatezko erreserbak	12.444	0
121	2013ko emaitza negatiboa	0	-5.874
129	Galerak eta irabaziak	-7.310	18.318
	Kapitaleko diru-laguntzak	22.672	27.090
130	Olaztiko Udalaren kapitaleko diru-laguntza	22.672	27.090
	Epe luzerako zorrak	2.192	3.370
180	Bermea	2.192	3.370
	Epe laburrerako zorrak	6.888	5.553
410	Hartzekodunak	4.118	3.104
475	Ogasun Publikoa hartzekoduna atxikipenengatik	667	621
	Ondasun garbiak eta pasiboa, guztira	40.186	51.757





IV. Iritzian eraginik ez duten oharpenak eta gomendioak

Jarraian, zenbait arlotan egindako lanaren analisi zehatza dago azalduta, eta bai iruzkin nagusiak, ondorioak eta, Ganberaren iritziz, Udalak hartu beharko lituzkeen gomendioak ere, bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko.

IV.1. Udalaren eta haren erakunde autonomoaren ekonomia- eta finantza-egoera

Aitortutako betebeharrak 1,8 milioikoak izan ziren; eta likidatutako eskubiak, berriz, 2,2 milioikoak.

Haien izaerari erreparatuta, gastu arruntak ehuneko 86 izan ziren eta finantza-eragiketakoak ehuneko zortzi. Diru-sarrera arruntak kopuru osoaren ehuneko 98 izan ziren, eta diru-sarrera horien ehuneko 22 jasotako transferentzia arruntetatik heldu ziren. Ez zen izan zorpetetik eratorritako diru-sarrerarik.

Laburbilduz, Udalak eta musika eskolak 2015ean eta 2014an gastatu zituzten 100 euroko, hauetara bideratu zituzten eta hauen bidez finantzatu ziren:

Gastuaren izaera	2015	2014	Finantzaketa-iturria	2015	2014
Langileak	36	37	Zergen bidezko diru-sarrerak	65	52
Beste gastu arrunt batzuk	49	46	Transferentziak	23	26
Inbertsioak	7	9	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste batzuk	12	22
Finantza-pasiboak	8	8	Finantza-pasiboak	0	0
	100	100		100	100





Udalak 2015erako zuen aurrekontu bateratua betetzeak eta 2014koarekin alderatzeak, besteak beste, datu ekonomiko hauek ekarri zituen:

Adierazleak eta magnitudeak	2015	2014	Aldaketa % 2015/14
Aitortutako betebeharrak	1.833.587	1.749.884	5
Likidatutako eskubideak	2.204.996	1.962.841	12
Gastu arruntak (1etik 4ra)	1.568.958	1.453.792	8
Funtzionamendu-gastuak (1,2 eta 4)	1.565.085	1.447.756	8
Kapitaleko gastuak (6 eta 7)	122.006	153.469	-21
Finantza-eragiketen gastuak (8 eta 9)	142.623	142.623	0
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	2.167.939	1.930.006	12
Zergen bidezko diru-sarrerak (1etik 3ra)	1.431.800	997.073	44
Kapitaleko diru-sarrerak (6 eta 7)	37.057	32.835	13
% Diru-laguntzekiko mendekotasuna	%23	%27	-14
% Zergen bidezko diru-sarrerak, gastu arrunten gainean	%91	%69	33
Finantzetakoa ez den aurrekontuko saldoa	514.032	355.581	45
Aurrekontuko emaitza doitua	382.634	241.020	59
Diruzaintza-gerakina gastu orokorretarako	1.332.812	967.738	38
Aurrezki gordina	602.853	482.250	25
Finantza-karga (3 eta 9)	146.495	148.659	-1
Aurrezki garbia	456.358	333.591	37
% Zorpetze maila	%6,76	%7,70	-12
% Zorpetzearen muga	%28	%25	11
% Zorpetzeko ahalmena	%21	%17	22
Zor bizia	804.841	947.464	-15

2015eko ekitaldiko aitortutako eskubide bateratuak 2,2 milioi eurokoak izan ziren, eta betetze maila ehuneko 105ekoa izan zen. Kobrantzak ehuneko 94 izan ziren.


2015ean, diru-sarrera bateratuak ehuneko 12 emendatu ziren 2014ko ekitaldiarekin alderatuta. Gastu bateratuen emendatzea, berriz, ehuneko bostekoa izan zen, eta aitortutako betebeharrak bateratuak 1,8 milioi eurokoak izan ziren.

2014ko ekitaldiaren aldean, diru-sarrerak emendatzean zergengatik aitortutako eskubideak nabarmendu behar dira, 2015ean %53 gehiago likidatu baitziren, zergen kontrol plan bat bete zelako eta 464.032 euro eragin zituelako Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergaren (EIOZ) eta Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren bidez.

Diru-sarreraren gutxitze handiena ondare bidezko eta herri-aprobetxamenduko diru-sarrerari egokitu zitzaion, 2014aren aldean, ehuneko 39 gutxitu baitziren. Izan ere, 2014an, 229.228 euro aitortu ziren baso-aprobetxamenduen enkantegatik, baina 2015ean izapidetutako enkantea ez zen 2016a arte ebatzi.

Gastuetan, aurreko ekitaldiaren aldean, emendatze handiena ondasun arruntetan eta zerbitzuetan izan zen, ehuneko 25 gehiago izanda. Izan ere, Zergen kontrol plana betetzeak 142.541 euro gehiago gastatzea ekarri zuen 2014arekin alderatuta.





Kapitaleko gastuak ehuneko 21 murriztu ziren 2014ko ekitaldiaren aldean, 2014an kapitaleko transferentzia bat egin baitzen udal sozietatera, 29.450 eurokoa, eta 2015ean ez zen halakorik egin.

Finantzetakoa ez den aurrekontuko saldoa, 514.032 eurokoa, ehuneko 45 handitu zen aurreko ekitaldiaren aldean.

Aurrekontuko emaitza doituak 382.634 euro inportatu zituen, eta, aurreko ekitaldiaren aldean, ehuneko 59 emendatu zen.

Diruzaintza-gerakina gastu orokorretarako, 1.332.813 euro, 2014koa baino ehuneko 38 handiagoa izan zen.

Epe luzerako zorra 804.841 eurokoa zen, eta hori diru-sarrera arrunten ehuneko 37 da, araudiak baimentzen duen maximoaren, ehuneko 110aren, aurrean.

Zorra ehuneko 15 murriztu zen 2014ko ekitaldiarekin alderatuta, eta horrek ekarri zuen zorpetze maila ehuneko 12 gutxitzea. Ondorioz, zorpetzearen muga eta ahalmena portzentajezko bi puntu hobetu zen.

Hortaz, Udalaren eta musika eskolaren datu bateratuak aintzat hartuta, egoera ekonomikoa zergarik edo kargarik gabekoa zen. Diru-sarrera arruntek ekitaldian aitortutako betebeharrak guztiak finantzatzeko bidea ematen zuten. Aurrekontuko emaitza doituak 382.634 eurokoa izan zen eta sortutako aurrezki garbia 456.358 eurokoa, 2014koa baino ehuneko 37 handiagoa. Udalak zorpetzeko ahalmena zuen. Aurrekontuko emaitza eta aurrezki garbi positiboak lortu ziren, bai 2014an, bai eta 2015ean ere. Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina, 1.332.812 euro, aurreko urtekoa baino ehuneko 38 handiagoa da.

IV.2. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuak betetzea

Kontu-hartzaitzak, kontu orokorrean, aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko oinarritzko zerga-erregelak betetzeari buruzko informazioa eman du.

Erregela horiek Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan daude ezarrita.





- Oreka/finantzaketa-ahalmena, kontabilitate nazionaleko terminoetan.

	Udala
1-7 kapituluetakoko diru-sarrerak	2.399.742
1-7 kapituluetakoko gastuak	1.893.373
Finantzaketako soberakina	506.370
Erakundeen arteko transferentziak	0
Finantzaketako ez den saldoa	506.370
*Kutxako irizpidea aplikatzea, 1., 2. eta 3. kapituluetan	16.941
*Interesen periodifikatzea	379
*Administrazio publikoen arteko transferentziak bateratzea	16.705
Finantzaketa-ahalmena, guztira	540.395

Horrenbestez, Udalaren, musika eskolaren eta udal sozietatearen kontu bateratuek 540.395 euroko finantzaketa-ahalmena dute eta finantza-orekaren printzipioa betetzen dute.

Gastu-erregela

Gastu konputagarria zehaztea, 2014. urtea	
(+) 1etik 7rako kapituluak aitortutako betebeharrak, 2014. urtea	1.660.636
SEC doikuntzak	
(-) Inbertsioen besterentzea	0
(+/-) Aurrekontuan aplikatzeko dauden hartzekodunak	0
	-37.057
Finantzaketako ez diren erabilerak SECen terminoetan	
(-) Zorpetzearen interesak, 2014. urtea	-6.036
(-) EB/AP funts finalisten bidez finantzatutako gastua, 2014. urtea	-104.818
= GASTU KONPUTAGARRIA 2014. URTEKO LIKIDAZIOA	1.512.726
(X) BPGd-a epe ertainean hazteko erreferentzia tasa N urtea	1,013
= GASTU KONPUTAGARRI HANDITUA N-1 URTEKO LIKIDAZIOA	1.532.391
(+) Emendatze iraunkorrak 2015eko diru-bilketa (+ EKONOMIA JARDUEREN GAINEKO ZERGA-REN OINARRIA, ZERGEN KONTROL PLANA)	116.285
(-) Murrizte iraunkorrak 2015eko diru-bilketa (arau aldaketak)	0
= Gastu konputagarri maximoa 2014	1.648.676
Gastu konputagarria zehaztea, 2015. urtea	
(+) 1etik 7rako kapituluak aitortutako betebeharrak, 2015. urtea	1.767.403
SEC doikuntzak	
(-) Inbertsioen besterentzea	0
(+/-) Aurrekontuan aplikatzeko dauden hartzekodunak	0
Beste doikuntza batzuk	
Finantzaketako ez diren erabilerak SECen terminoetan	1.767.403
(-) Zorpetzearen interesak, 2015. urtea	-3.872
(-) EB/AP funts finalisten bidez finantzatutako gastua, 2015. urtea	-99.449
= Gastu konputagarria 2015. urteko likidazioa	1.664.082

Ez da gastu-erregela bete, 2015eko gastu konputagarria 2014ko gastu maximoa, erreferentziatzeko tasarekin eguneratua, baino 15.406 euro handiagoa izatean.





Adierazi behar da Zergen kontrol planak, 2015ean, ohiz kanpoko gastuak eta ez errepikariak eragin dituela eta zenbatekoa 197.363 eurokoa izan dela.

- Zorraren iraunkortasuna

Egonkortasunerako araudiaren eraginetarako, zor publikoa da urte bakoitzeko abenduaren 31n erakundeak duen zorraren zenbatekoa, kredituko eragiketa formalizatuen saldo ez erabilia kenduta.

Zorraren iraunkortasuna	2015
Zorra, guztira	804.841
2015eko diru-sarrera arruntak	2.236.716
% Zor bizia diru-sarrera arrunten gainean	35,98

Hortaz, erregela bete da, zorrak ez baitu gaintitu diru-sarrera arrunten ehuneko 110eko muga.

- Merkataritzako zorra

Udalak aurkeztutako datuak bat datoz SEPALek ematen dituenekin eta hauek dira:

	Udala	Musika eskola	Erburua
Egindako ordaintzen zenbatekoa	351.435	766	14.273
Ordaindutako eragiketen ratioa	-9,21	-22,12	-23,02
Ordaintzeko dauden eragiketen zenbatekoa	28.102	0	1.521
Ordaintzeko dauden eragiketen ratioa	-26,55	0,00	-29,00
Erakundearen eragiketen zenbatekoa	379.537	766	15.794
Ordaintzeko batez besteko aldia	-10,50	-22,12	-23,59
Hornitzaileen ordaintza globalaren batez besteko aldia	-11,04		

Ordaintzeko batez besteko aldia 19 egunetik beherakoa da, eta, beraz, merkataritzako eragiketak ordaintzeko legezko aldia betetzen da.

IV.3. Alderdi orokorrak

2014ko abenduaren 31n, alkatetzak luzatu egin zuen 2014ko aurrekontua 2015. urterako. 2015eko martxoaren 26ko osoko bilkuran, Udalaren eta musika eskolaren 2015erako aurrekontua onartu zuen. Nafarroako Toki Ogasunen Foru Legean aurreikusitakora egokitzen da edukia. NAO n eman zen argitara.

Ekitaldian zehar, hasierako aurrekontuari sei aldaketa egin zizkioten eta, guztira, kopuru garbia 231.550 eurokoa izan zen. Bi aldaketa partiden arteko transferentziak izan ziren, 19.103 eurokoak, eta eragin garbia zero izan zen. Aldaketa bat kreditu-gerakinak sartzea izan zen, 4.600 eurokoak, eta beste hiru aldaketak kreditu-gehirriak dira, guztira, 226.950 eurokoak. Zati batean,





gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinaren kontura finantzatu dira, 11.550 euroko zenbatekoarekin.

Aldaketen espedienteak aztertuta, ikusi da, izapidetzeari eta edukiari dagokienez, aurrekontuen araudian aurreikusitakora egokitzen direla, salbuespen bategin: 220.000 euroko kreditu-gehigarri bat diru-sarrera berrien edo handiagoen bidez finantzatu da, hasieran aurreikusitakoen gainean, onartzeko unean benetan ez zegoen diru-bilketa handiagoa, kontu-hartzaitzaren txostenean nabarmentzen zen moduan. Aldaketa hori onartu eta gero, diru-bilketa handiagoa benetan gertatu zen.

Udalaren eta musika eskolaren aurrekontuaren likidazioak 2016ko apirilaren 29an onetsi zituen alkatetzak.

Kontu orokorraren edukia araudiak exijitzen duenera egokitzen da.

Kontingentziak: 2015eko ekitaldia ixtean, arriskua zegoen Udalerako, Zergen kontrol planetik eratorritako zerga-likidazioen eta zehapenen gaian udal erabakien kontra helegiteak aurkeztu izanaren ondorioz, gutxienez, 759.192 eurokoa.

IV.4. Udaleko eta haren erakunde autonomoko langileak

2015ean, langileek eragindako gastua 664.193 eurokoa izan da. Gastuaren bilakaera hau izan da:

	Aitortutako betebeharrak		Aldaketa %
	2015	2014	
Udala			
Kargu hautetsien ordainsariak	24.642	20.010	23
Langile funtzionarioak	405.635	385.785	5
Aldi baterako lan-kontratudunak	44.668	42.787	4
Gastu sozialak	159.612	165.140	-3
Udala, guztira	634.557	613.722	3
Musika eskola			
Ordainsariak	22.241	26.073	-15
Gastu sozialak	7.395	8.695	-15
Musika eskola, guztira	29.635	34.768	-15
Guztira	664.193	648.491	2

Kargu hautetsien ordainsariak handitu dira, 2014an hiru zinegotzi kargu hutarik zeudelako eta 2015eko hauteskundearen ondoren bete egin zirelako. Horrez gain, 2015eko ekaineko osoko bilkuran, erabaki zen alkateak dedikazio eskusiboa izan behar zuela lanaldi osoan eta horrek ekarri zuen haren ordainsariak ehuneko 56 emendatzea.

Udaleko eta musika eskolako plantilla organikoa 2015eko apirilaren 30ean onartu zen behin betiko. Ez da aldatu aurreko ekitaldikoarekiko.





Udala

Plaza kop. plantillan	Maila	Lanpostua	Beteak	Lan-harremana	Hutsak
1	A	Idazkaria	1	Kontratu administratiboa	1
1	B	Kontulari-ekonomista	1	Funtzionarioa	
1	C	Ofizial administraria	1	Funtzionarioa	
1	D	Administrari laguntzailea (lanaldi 1/2)	1	Kontratu administratiboa	1
2	C	Aguazila	2	Funtzionarioak	
1	C	Askotariko eginkizunetarako ardura-duna	1	Funtzionarioa	
2	D	Askotariko eginkizunetarako enplegatua	0		2
3	E	Obretako peoia	2	Funtzionarioak	
4	E	Garbiketako langileak	4	Funtzionarioak	
1	B	Kultura-koordinatzailea	1	Funtzionarioa	
17		Udala, guztira	14		5

Musika eskola

Plaza kop. plantillan	Maila	Lanpostua	Beteak	Lan-harremana	Hutsak
4	B	Musika irakasleak	4	Kontratadun administratiboak	4
4		Musika eskola, guztira	4		4

Udalean hutsik zeuden bost lanpostuetatik, bi kontratu administratiboen bidez zeuden beteta. Lanpostuen zerrendan, margolaritzako monitore lanpostua ageri da, aldi baterako lan-kontratu baten bidez betea.

Plantillan aurreikusitako lau musika irakasleek kontratatze administratiboaren arabera ematen zituzten zerbitzuak.

Udalak ez du onartu enpleguko eskaintza publikorik.

Udaleko hiru langileren eta musika eskolako bi irakasleren soldatak aztertuta, ondorioztatu dugu plantilla organikoan beren lanposturako ezarrita daudenekin bat datozela ordainsariak eta dagozkien espediente pertsonaletan jasotako inguruabar administratibo eta pertsonalekin. Era berean, bat datoz aplikatzekoa den araudiarekin. Atxikipean zuzenak dira.

IV.5. Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan

2015ean, kapitulu honetan, aitortutako betebeharrekin 622.527 euro inportatu zituzten, Udalaren gastuen ehuneko 34, eta 457 euro, musika eskolaren gastuen ehuneko 1,5.





2014ko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko 25 handitu zen Udalean eta ehuneko 16,8 murriztu zen musika eskolan. Zehatz-mehatz, datuak hauek izan ziren.

	2015	2014	Aldaketa %
21 Konponketak, mantentze- eta kontserbatze-lanak	54.543	72.573	-24,8
22 Materiala, hornidura eta beste batzuk	567.222	423.080	34,1
23 Kalte-ordainak, zerbitzuarengatik	762	975	-21,8
Udala, guztira	622.527	496.628	25,4
22 Materiala, hornidura eta beste batzuk	457	380	16,8
Musika eskola, guztira	457	380	16,8

Partida hauek berrikusi ditugu, Udalean eta musika eskolan kapituluaren gauzatzearen ehuneko 23 eta 35 eragin baitute.

Udala	Aitortutako betebeharrak 2015
Juridikoak, auzi-kontuak eta notarialak	47.493
Berdintasun plana egitea eta aholkularitza	18.392
Harrobietako leherketak neurtzea	18.150
Ingurumeneko aholkularitza teknikoa	8.580
Gizarte Gaietako Batzordearen jarduerak	9.627
Kultura-jarduerak	39.567
	141.809
Haur eskola	
Datuen babesa, mantentze-lanak	133
	133

Juridikoak, auzi-kontuak eta notarialak

2010-2015 aldian, partida honetako gastuak hauek izan dira, eragin zituen kontuaren arabera sailkatuta.

Kontua	2010	2011	2012	2013	2014	2015	Guztira
Ingurumen baimen integratua	57.190	2.925	37.449	43.560	49.822	36.905	227.851
Udalari legeen arloko aholkularitza ematea		2.950	6.033	6.165	4.624	4.624	24.396
Portu kaleko urbanizazio kontratuak ebaztea	4.950	10.989	5.840				21.779
Ikurrinak				5.284	2.392		7.676
Zehapen-espedienteak eta antzekoak				1.310	1.271	4.834	7.415
Beste batzuk	156	3.407	228	120	889	1.131	5.931
Guztira	62.296	20.271	49.549	56.439	58.997	47.494	295.048

Gastu guztiak kontabilizatu diren partidaren izaera ekonomikoari dagozkio. Ehuneko 84, 246.883 euro, abokatuei emandako ordainsariak dira; ehuneko zortzi, 23.703 euro, kostuak ordaintzera kondenatu izanagatik ordaindu behar izan dira; ehuneko sei, 18.264 euro, ingurumen gaietan aholkularitza jasotzeari dagozkio; eta gainerakoa, 6.195 euro, prokuradoreen, notarioen, erregistratzaileen eta perituen ordainsariak dira.





- Ingurumen baimen integratua

Foru Komunitateko administrazioak ingurumen baimen integratua eman zuen Olaztiko zementu fabrikarako 2007ko ekainean, eta 2011n aldatu egin zuen. 2013ko urtarrileko Nafarroako Gobernuaren Akordioaren bidez, “Olaztiko zementu fabrika erregai alternatiboaren balorizazioa egitea” izeneko udalez gaindiko proiektu sektoriala onartu zen, eta ingurumen baimen integratu berria eman zen. 2013ko abuztuko ebazpen batek, Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiak emanak, ingurumen baimen berria eman zuen zementua egitea eta magnesio-oxidoa eta dolomia ekoiztea instalatzeko, instalazioa oinarritzko eran aldatzeko proiektu baten ondorioz.

Udalak helegiteak aurkeztu zituen lau erabakien aurka. Lehen bi ebazpenen aurka gora jo zen, aurrena Nafarroako Justizia Nagusiaren aurrean, eta, behin horrek ezezkoa eman eta gero, lehen kasuan, edo zati batean onartuta bigarren kasuan, kasazioan Auzitegi Gorenean. Udalez gaindiko proiektu sektorialaren kasuan, Nafarroako Gobernuaren Akordioaren bidez balioa galtzat jo zen, eta, beraz, Udalak Auzitegi Gorenean aurkeztutako kasazio helegitea atzera egindakotzat hartu zen. Instalazioa oinarritzko eran aldatzeagatik baimen berria ematen zuen ebazpena balioa galtzakotzat jo zuen Ingurumenak.

2015eko abenduaren 31 bitartean, helegite horiek eragin zituzten gastuak hauek izan ziren:

	Abokatuak	Kostuak	Prokuradorea	Beste batzuk	Guztira
302/2007 Foru Agindua					
Administrazioarekiko auzi helegitea	56.774				56.774
Kasazio helegitea Auzitegi Gorenean	28.674	6.238	1.136		36.048
855/2011 Ebazpena					
Administrazioarekiko auzi helegitea	43.560				43.560
Kasazio helegitea Auzitegi Gorenean	14.520				14.520
2013ko urtarrilaren 16ko Nafarroako Gobernuaren Akordioa					
Administrazioarekiko auzi helegitea	43.560				43.560
355E/2013 Ebazpena					0
Administrazioarekiko auzi helegitea	14.520			605	15.125
Ingurumen arloko aholkularitza				18.264	18.264
	201.608	6.238	1.136	18.869	227.851

Gastua zuzen eta egoki justifikatu eta kontabilizatu zen. Lanak zuzenean esleitu ziren. Zenbatekoak kontuan hartuta, esleipenduna hautatzeko, Europar Batasunean publizitaterik ez duen prozedura negoziatua egin beharko zen.





- Udalari legeen arloko aholkularitza ematea

Bulego batek ematen du. Publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez kontratatu zen 2011n, urte baterako, eta lau arte luza zitekeen. Luzapenak berariazkoak izan dira. Udalaren kontrako gainerako auzi-kontuak hauetatik datoz: Portu kalean urbanizazio eta obra zuzendaritzako kontratuen ebazpenak, Estatuko abokatutzaren bi erreklamazio Espainiako bandera ez erakusteagatik eta Zergen kontrol planak ukitutako zerga-ordaintzaileen erreklamazioak. Gas-tua behar bezala justifikatuta dago.

Berdintasun plana egitea eta aholkularitza

Berdintasun planari eta arlo horretako aholkularitzari dagozkion gastuak, profesional berberari ordainduak, hauek izan dira.

	2013	2014	2015	2016	Guztira
Gizarte Gaietako eta Berdintasuneko Batzordea	653	2.977			3.630
Berdintasun plana egitea eta aholkularitza			10.406		10.406
Aholkularitza berdintasunean		5.082	7.986	2.904	15.972
	653	8.059	18.392	2.904	30.008

“Gizarte Gaietako eta Berdintasuneko Batzordea” izenburupean, udalerriko emakumeen eta gizonen arteko berdintasun diagnostiko bat egiteko gastua jaso da. Indarrean dagoen legeriaren arabera, faktura aurkeztea besterik ez zuen eskatzen.

Berdintasun plana egitea Europar Batasunean publizitaterik ez duen prozedura negoziatuaren bidez kontratatu zen, hiru teknikari gonbidatuta. Laguntza emateko kontratua 2015eko otsailean gauzatu zen, eta prezioa 10.406 eurokoa izan zen, BEZa barne. Kontratatzea indarrean dagoen araudiaren arabera izan zen.

Aholkularitzetan, 726 euroko hileroko gastuak daude kontabilizatuta: zazpi 2014an, hamaika 2015ean eta lau 2016an. Guztira, 15.972 euro dira.

2015eko urritik aurrera, Udaleko idazkariak eragozpenak jarri zizkien hileroko aholkularitza horiei, inolako kontratu prozedurarik ez egotean oinarrituta eta beharrezkoa izanda, fakturen zenbateko osokoa kontuan hartzean. Bat gatz argudio horretan, egokia izango baitzen publizitaterik gabeko era negoziatuan kontratatzea. Alkatetzako ebazpenen bidez (eragozpen oharren aurkakoak), fakturak aitortzea eta ordaintzea agindu zen. Idazkariak osoko bilkuran aurkeztu eta azaldu zuen egintza, eta hark jakindakotzat eman zuen bere burua.





Harrobietako leherketak neurtzea

Herriko bi harrobitan leherketek eragindako dardaren kontrola ordainsaritu da. 2013ko otsailean esleitu zen lana, Europar Batasunean publizitaterik ez duen prozedura negoziatuaren bidez, araudiarekin bat etorrita.

Dagozkien fakturek justifikatu dute gastua, kontratatutako prezioen arabera. Harrobiak ustiatzen dituzten enpresei ordainarazi zaie, eta beste diru-sarrera batzuk bezala kontabilizatu da, 3. kapituluan.

Ingurumeneko aholkularitza teknikoa

Ingurumeneko eta jarduera sailkatuetako gaian aholkularitza eman eta kontrola egiteagatik hiruhilekoko gastuak jasotzen ditu, 2007ko maiatzeko kontratu baten arabera emandakoak. Azken hiru urteetako batez besteko urteko gastua 8.139 eurokoa izan zen. Laguntza emateko kontratuen gehieneko iraupena gainditu da, baina egun espedientea abiarazi da kontratatze berri bati ekiteko.

“Gizarte Gaietako Batzordearen jarduerak” eta “Kultura-jarduerak”

Partidek zenbateko txikiko gastuak jasotzen dituzte, kontratuek, aurrekontuek eta fakturek justifikatutakoak.

Dagokion kontratatze prozedura baliatzea gomendatzen dugu, zerbitzuaren zenbatekoaren arabera.

IV.6. Zorra. Zorraren finantza-karga

Ekitaldia ixtean, Udalak finantza-erakundeekin duen zorra 804.841 eurokoa da, diru-sarrera arrunten ehuneko 37,4. Zehazki, hau da:

Erakundea	Zertarako	Emandakoa	Eman zen eguna	Muga-eguna	Zor bizia
Laboral Kutxa	Inber. oro har	360.607	99-05-06	19-05-06	96.162
BCL/BBVA	Inber. oro har	406.839	00-02-16	15-02-06	0
Laboral Kutxa	Inber. oro har	673.134	00-10-07	20-10-07	210.354
Laboral Kutxa	Inber. oro har	1.000.000	08-01-08	28-01-08	498.324
		2.440.580			804.841

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, 142.623 euro gutxitu da zorra.

Musika eskola eta udal sozietatea ez daude zorpetuta.





Interesak eta amortizazioak aurrekontuetan jasota daude gastuen aurrekontuko 3. eta 9. kapituluetan. 2015ean, xehetasun hauen arabera aitortu ziren betebeharrak:

	Amortizazioa 2015	Interesak 2015	Guztira
CLP 4044 kredituaren amortizazioa	42.071	2.559	44.630
BCL-BBVA maileguaren amortizazioa	36.985	141	37.126
CLP 3818 kredituaren amortizazioa	24.040	0	24.040
CLP 4328 maileguaren amortizazioa	39.526	1.172	40.699
	142.623	3.872	146.495

IV.7. Gastuak transferentzia arruntengatik

2015ean, transferentzia arruntengatik gastua 293.879 eurokoa izan zen, honela bananduta:

	2015	2014
Erakundearen erakunde autonomo administratiboetara	15.970	17.700
Toki erakundeeko enpresetara	125.293	127.000
Toki erakundeetara	96.101	115.515
Familiei eta irabazteko asmorik gabeko erakundeetara	56.515	59.743
Guztira	293.879	319.958

Aurrekontuaren betetze bateratua kalkulatzeko, Udaleko gastutik musika eskolarako 15.970 euroko transferentziak kendu dira. Doitu ondotik, kapitulu honetako aurrekontuaren betetze bateratua 277.909 eurokoa izan zen, hau da, ehuneko 87an gauzatu ziren. Ekitaldian bateratutako aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 15 dira.

Familiei eta irabazteko asmorik gabeko erakundeetara egindako transferentzien ehuneko 60,5 transferentzia izendunak dira. Gainerakoak, gizarte-, kirol- eta kultura-jardueretarako diru-laguntzak dira. Diru-laguntzak arautzeko ordenantza dauka Udalak.

Lagin hau egiaztatu dugu. Hain zuzen, kapituluko gastu osoaren ehuneko 46 hartzen du.

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak 2015
Ekarpenak ANIMSara	15.293
Ekarpena Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatera	37.547
Ekarpenak Sakanako Mankomunitatera	58.022
Ekarpena Iñigo Aritza ikastolara	18.619
Ekarpena Kamiogaina erretiratuen elkartera	6.162
Guztira	135.643





Oro har, ondorioztatu behar dugu transferentziak zuzen onartu, justifikatu, kontabilizatu eta ordaindu direla. Ondokoa adierazi behar dugu:

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak bere hasierako aurrekontuaren zenbatekoa jasotzen du, eta urte amaieran erregularizatzen da, urteko likidazioaren arabera, eta diferentzia hurrengo urteko gastuari egozten dio. Hartara, 2015ean, 56.350 euroko aurrekontuari 2014ko likidazioko emaitza kendu zaio, 18.802 euro, zehazki.

Ekarpena Iñigo Aritza ikastolara. 1990eko osoko bilkuraren bi akordiotan oinarritzen da, eta haien arabera, Udalak bere gain hartzen ditu horniduren eta garbiketako langileen eta zaintzailearen gastuak, eta bai konponketenak ere muga bateraino.

Bi akordio horiek zaharkituta daude. Beste udal batzuek ere diruz laguntzen dute Ikastola.

Iñigo Aritza ikastolarekin hitzarmena izenpetzea gomendatzen dugu, aipatutako akordioak eguneratuta, diru-laguntzaren oinarriak zehaztuta, kontuan izanik beste udal batzuek ere esku hartzen dutela Ikastola finantzatzean.

IV.8. Inbertsioak

Udalaren 2015erako aurrekontuak aurreikusten zituen 196.157 euroko behin betiko kredituak. Aitortutako betebeharrak 121.618 eurokoak izan ziren, 2014ko zenbatekoaren antzekoa. Inbertsio nabarmen edo garrantzitsuena basoko lanetan egin zen, 58.637 euro, kapituluan aitortutako betebeharren ehuneko 48.

Musika eskolan, musika tresnak erosi eta 388 euro gastatu ziren. 2014an, berri, 801 euro kontabilizatu ziren.

Basoko lanetako gastua honela banandu zen:

Proiektua idaztea	1.636
Obra zuzentzea	2.181
Herri-mendiko zubiak hobetzeko lanak	50.682
Lana aldatzea	3.449
Seinaleak jartzea	690
Guztira	58.637

Proiektua idaztea eta obra zuzentzea Udaleko aholkularia den basogintzako ingeniariari esleitu zitzaion. Lana izan zen Olaztiko basoko pista nagusian hiru pontoi konpondu eta handitzea.

Izapide arruntaren bidez esleitu ziren lanak, Europar Batasunean publizitate-rik ez duen prozedura negoziatuaren bidez, hiru enpresari eskatuta eskaintzak.





Espedienteak beharrezkoak diren jarduketa guztiak jasotzen ditu, kontratatze publikorako araudiarekin bat etorrira. Dagozkien egiaztagiriek justifikatu dute gastua.

Foru administrazioak zati batean finantzatu du lana, 22.254 euroko transferentzia bat eginda.

IV.9. Udal zergak

Udal zergak	Aitortutako eskubideak		Aldaketa % 2015/2014
	2015	2014	
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	1.355	1.361	-0,4
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	207.050	207.893	-0,4
Ibilgailuak	121.525	121.092	0,4
Lurren balio-gehikuntza	5.106	20.120	-74,6
Ekonomia Jardueren gaineko Zerga	346.203	387.182	-10,6
EJZ erregularizatzea, Zergen kontrol planera	358.194		
Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga	17.350	23.382	-25,8
EIOZ erregularizatzea, Zergen kontrol planera	105.838		
Guztira	1.162.621	761.030	52,8

2014ko irailaren 18ko osoko bilkuran, 2014tik 2015erako ekitaldietarako zergen kontrolerako udal plana onartu zuten, zergapekoei buruzko informazioa egiaztatzeko, ikertzeko eta lortzeko jarduketak egiteko baimen orokor moduan. NAOn eman zen argitara.

Zergen kontrol plana aplikatzeak ekarri du zergengatiko diru-sarrerak 464.032 euro emendatzea, aurreko ekitaldiaren aldean, ehuneko 40 gehiago. Egindako erregularizazioen zenbatekoa zergengatiko diru-sarreraren ehuneko 39 da.

Ekonomia Jardueren gaineko Zergari dagokionez, udalerriko enpresa batek 2009tik 2012rako ekitaldietan aitortutako likidazioen eta Udalak zerga-egitatearen elementu erabakigarriak egiaztatetik etorritako emaitzen arteko diferentzietatik dator erregularizazioa. Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga dela-eta, herriko bi enpresak zenbait eraikin eraiki izana berrikustetik dator.

Udalak aplikatutako tasak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak kontuan hartzen duen sortan erdiko edo goiko tartean daude.

Zerga-figura	Udala	2/1995 Foru Legea
Lurraren gaineko kontribuzioa		0,10 - 0,50
Landa-lurra	0,8	
Hiri-lurra	0,3515	
Ekonomia Jardueren gaineko Zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Eguneratze-koefizientea	2,5	2 eta 3,3 artean
Karga-tasa	10,66	8 eta 20 artean
Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga	2,5 eta 5 artean	2,5 eta 5 artean





Indarrean dagoen balorazio-txostena 2001eko abenduaren 23koa da, eta, hortaz, zabal gainditu da araudiak hura berrikusteko ezartzen duen bost urteko epea. Balorazio-txosten berria egiten ari dira.

Zerga desberdinen lagin baten gainean egindako lanaz ondorioztatu dugu denak zuzen ordainarazten eta kontabilizatzen direla.

IV.10. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk

Tasa eta beste diru-sarrera batzuentzako bateratutako aitortutako eskubideek 333.156 euro inportatu dituzte.

Erakundearen kontuak tasekin eta prezio publikoekin finantzatutako zerbitzuen kostuen txostena jasotzen du eranskin batean. Bai musika eskola eta udal sozietatea, bai eta zerbitzu erkidetuak ere gastu gunetzat hartzen ditu.

Lagin hau egiaztatu dugu. Hain zuzen, Udalean kapitulu honetan aitortutako eskubideen ehuneko 8 hartzen du eta musika eskolan ehuneko ehun.

Deskribapena	Aitortutako eskubideak
Zerbitzuz hornitzen duten enpresen aprobetxamendu bereziak	105.136
Leherketen neurketen gastuen eragina	17.987
Udalaren lagina, guztira	123.122
Musika eskolako prezioak	10.585
Musika eskolaren lagina, guztira	10.585

Hornidurak ustiatzen dituzten enpresen aprobetxamendu bereziengatik kontraprestazioen zerga-egitatea da enpresak udalerrian lortutako diru-sarrera gordinak. Haien ordainarazpena enpresen autolikidazioetan oinarritzen da.

Leherketak neurtzeagatik gastuen eragina harrobietako bi kontzesiodunekin izenpetutako hitzarmen banatan oinarritzen da. Leherketek udalerrian dituzten eraginak neurtzeko zerbitzua kontratatuta du Udalak eta gastua kontzesiodunei ordainarazten die, eta era berean beste batzuekin kontratatutakoak, harrobi bakoitzetik ateratako metro kuboak neurtzeko lau urtean behin, kontzesioaren kanonerako erabakigarriak baitira.

Musika eskolako prezioek matrikulazioen eta hileroko kuoten zenbatekoa hartzen dute. Eskolaren diru-sarreraren ehuneko 35 dira.

Egindako lanaz ondorioztatu dugu kapituluko diru-sarrerak ongi eta zuzen kontabilizatu direla, likidazioen, hitzarmenen edo aplikatzekoak diren ordenantzen arabera kalkulatuta.





IV.11. Transferentziengatiko diru-sarrerak

2015ean Udalaren aurrekontuan aitortutako eskubideen ehuneko 21 dira transferentzia arruntak eta ehuneko 2 kapitalekoak. Oro har, 2014an aitortutako eskubideekin alderatuta, ehuneko 3,4 murriztu ziren. Zehazki, honela bete ziren:

Udala	2015	2014
Estatuko zergetan parte hartzea	1.821	1.821
Transf. EIN (erroldako lanak, zentsua)	34	34
Gizarte Segurantzako transferentziak	1.551	
NGren diru-laguntzak langabeak kontratatzeagatik. 2013. urtea		11.207
NGren diru-laguntzak, kultura-jarduerengatik	13.382	8.851
GNren mutualitatearen finantzaketa	10.503	11.051
NGren diru-laguntzak, langabeak kontratatzeagatik	1.914	19.340
NGren diru-laguntzak, euskara sustatzeko jarduerengatik	1.570	1.116
NGren diru-laguntzak, bake epaitegiaren funtzionamenduarengatik	716	719
NGren diru-laguntzak, mediku-kontsultategiaren funtzionamenduarengatik	6.163	6.181
NGren diru-laguntzak – eskola-kontzentrazioak	1.554	941
Nafarroako Ogasun Publikoaren zergetan parte hartzea	411.448	411.448
Konpentsazio ekonomikoa, kargu hautetsien ordainsariak	19.073	19.073
Sakanako Mankomunitatean parte hartzea. Maileguaren interesak, ura	48	102
Diru-laguntza arruntak, guztira	469.776	491.884
NGren diru-laguntzak, herri-ikastetxea hobetzeko	8.191	23.169
NGren diru-laguntzak, basoko lanetarako	22.254	7.899
Sakanako Mankomunitatean parte hartzea. Ur mailegua	1.613	1.613
Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren diru-laguntzak, hiri-eremuak lehengoratzeko		154
Egin gabeko obren bermeak bahitzea	4.999	
Kapitaleko diru-laguntzak, guztira	37.057	32.835
Udala, guztira	506.833	524.719

Musika eskolak ez zuen kapitaleko transferentziarik jaso. 2015ean, transferentzia arruntak 19.892 eurokoak izan ziren, ekitaldian aitortutako diru-sarreraren ehuneko 65, 2014an aitortutakoa baino ehuneko 9,5 gutxiago.

Musika eskola	2015	2014
NGren diru-laguntza	3.922	4.283
Udalaren diru-laguntza	15.970	17.700
Musika eskola, guztira	19.892	21.983

Nafarroako Gobernutik heldu diren zenbatekoak foru administrazioko kontabilitateak egiaztatu ditu, eta, musika eskolaren kasuan, Udalaren transferentzia udal kontabilitatean justifikatuta dago.





IV.12. Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-aprobetxamenduak

Kapituluan aitortutako diru-sarrerak 262.442 eurokoak izan ziren, hain zuzen ere, ekitaldirako diru-sarreraren aurreikuspenen ehuneko 91. 2014an, diru-sarrerak 436.767 eurokoak izan ziren. 2014an, basoko aprobetxamenduak enkantean eskaintzeagatiko eskubideak aitortu ziren, 229.228 eurokoak, baina 2015ean ez zen egon diru-sarrera hori.

Hiru harrobiren aprobetxamenduarengatiko kanonek ekarri dute ekitaldian 250.581 euroko eskubideak aitortzea, kapituluko diru-sarrera guztien ehuneko 95,5. Aurrekontuan sartutako zenbateko berberen arabera aitortu dituzte eskubideak partida hauek.

Partiden xehetasunak hauek dira:

Deskribapena	Aitortutako eskubideak
Egibil eta Koskobilo harrobien kanona	182.534
Aldoiar harrobiaren kanona	68.047
	250.581

Kanonaren kalkulua nola egin behar den ustiatzen dituzten bi enpresekin izenpetuta dituzten hitzarmenetan finkatuta dago. Urte bakoitzean, aurreko urteko kanonaren %50 ematen da kontura, eta hurrengo urtean erregularizatzen da, kontzesiodunek aurkeztutako ateratze- edo erauzte-datuen arabera. Lau urtean behin neurketak egiten dira benetako erauzketaren gainean.

Egindako likidazioak eta kalkuluak egiaztatuta, ikusi da zuzenak direla, eta bai diru-sarrera horien kontabilizazioa ere.

IV.13. Erburua Olazti, SL udal sozietatea

2013an eratu zen, 3.300 euroko kapital sozialarekin, eta osorik harpidetu zuen Udalak. Zehazki, sozietatearen helburu soziala da Udalaren kirol instalazioak kudeatzeko zerbitzuak ematea.

Erburua Olazti, SL udal sozietatearen emaitza ekonomikoaren kontuak langileekin lotutako gastu hauek ditu:

	2015	2014	Aldaketa %
Soldatak, guztira	74.176	71.547	4
Gizarte Segurantza enpresaren kontura	24.611	23.702	4
Guztira	98.787	95.249	4

Udal sozietateak hiru langile ditu, arduradun bat eta bi atezain. Horrez gain, monitoreak kontratatzen ditu. 2015ean, 20 pertsona desberdinen aldeko soldatak erregistratu ziren, eta 2014an, 19 pertsona izan ziren soldata izan zutenak.

Bi langileren lagin baten gainean egindako lanaz ondorioztatu dugu aplikatzea den hitzarmenarekin bat datozela ordainsariak eta haietako bakoitzaren





espediente pertsonalean dokumentatutako inguruabar pertsonalekin. PFEZa dela-eta egindako atxikipenak Ogasunari aitortutakoekin bat datoz.

623 “Zerbitzu profesional independenteak” kontuaren edukia berrikusi dugu, 3.140 eurokoa. Sozietatearen kontabilitatea, zergen arloko betebeharrak eta kontuen gordailutzea kudeatzen dituen aholkulari bulegoaren zerbitzuak ordainsaritzen ditu.

Era berean, 629 “Beste zerbitzu batzuk” kontuan sartutako gastuen lagin bat egiaztatu dugu. Guztira, 10.624 euro dira, kontu horretan jasotako gastuaren zenbatekoaren ehuneko 60.

Bi kontuetan, gastua dagozkien fakturen arabera justifikatuta dago.

Emaitza ekonomikoaren kontuak 183.195 euroko diru-sarrerak jasotzen ditu, eta haietatik 110.000 euro Udalak emandako ustiapenaren diru-laguntzari dagozkio, eta 53.730 euro kuota eta matrikulengatik eskuratutako diru-sarrerak dira.

Diru-sarreraren 705. zenbakiko kontua egiaztatu dugu. Honela osatuta dago:

70500001	Bazkideen kuoten diru-sarrerak	34.180
70500002	Igerilekuko abonuen diru-sarrerak	9.395
70500003	Zenbait ikastaroren diru-sarrerak	10.155
		53.730

Oro har, bazkideen kuoten eta igerilekuko abonuen ordainagirien zerrendek eta ikastaroengatik bankuko diru-sarrerak justifikatuta daude diru-sarrerak.

Tarifak Udalak onetsitakoekin bat datoz. Salbuespena dira bertako kirol klub bateko kideei ordainarazitakoak –kirol jarduerak dinamizatzen aritzen da–, ehuneko 25eko beherapena egiten baitzaie. Aspaldiko praktika da, sozietatea bera sortu baino lehenagotik egiten dena, baina inolako akordio edo hitzarmenek bermatzen ez duena. Egun, Udala lanean ari da ordenantza berria eta arauzko hitzarmena idazteko.

IV.14. Hirigintza

Indarrean dagoen hirigintzako udal plana 2005ean hasi ziren idazten, egungo Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Legea betetze aldera, zeuden plan guztiak bere xedapenetara egokitzea agintzen baitzuen. Planaren izapideak denboran luzatu egin ziren; izan ere, udalbatza berri batek bitan ezarri zituen oinarri berriak plana idazteko, eta aldi bakoitzean bete behar izan baitziren jendaurrean jartzeko eta alegazioak hartzekoaldiak.

Udalak 2014ko irailaren 18an onartu zuen horren guztiaren emaitza izan zen plana, egun indarrean dagoena. Sustapen kontseilariak 2015eko maiatzean onartu zuen behin betiko. Dagokion hirigintzako araudia 2015eko ekainean eman zen argitara.





Planaren abiaburua da etxebizitzaren arloan berehalako eskaerarik ez egotea, ezta babes publikoko etxebizitzena ere, eta, horrenbestez, egungo bilbea edo sarea sendotzearekin lotutako garapen bat diseinatzen du.

Lehen fasea zortzi urtekoa da, eta bertan, jarduketara asistematikokoak ezartzen dira hiri-lurzoru finkatuan, gehienez ere 58 etxebizitza ekar ditzaketena eta egungo hiri-bilbean txertatuta dauden exekuzio-unitateen garapena. Haien antolamendu xehatua jasota dago jada planean, gehienez ere 92 etxebizitzarekin.

Bigarren fasea 10-15 urtekoa izango da, eta bertan aurreikusten da 77 etxebizitza eraikitzea hiri-lurzoru finkatugabeen eta, gehienez ere, 208 etxebizitza lurzoru urbanizagarrian.

Industria-erabilerari dagokionez, planak aurreikusten du antolamendu alternatiboa egungo industria-lursail mugakideena egoitzarako erabilerarekin, hiri-bilbea betetzeko, eta, aldi berean, industria-lurzoruko erreserba handi bat sortzen du, enpresak berriro kokatzeko, haien lekualdatze progresiboa eta enpresa berriak kokatzea erraztuta.

- 2015ean onetsitako hirigintzako tresnak

2015ean, Udalak Udala Planaren aldaketa bat onartu du, "Olaztioko Udala Planaren determinazio xehakatuaren aldaketa, katastroko 508. lurzatia, 1. poligonoa".


2010ean, Udalak lerrokaduren aldaketa bat onartu zuen, lursail pribatuaren lagapenarekin, kale bat zabaltzeko, eta familia bakarreko etxebizitza bat eraikitzea baimendu zuen. 2015ean, erregistro-inskripzioa egin zenean hutsegiteak ikusi ziren azaleretan eta poligonoaren zenbakietan. Zuzentzeko espedientea da. Hura izapidetzean Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Foru Legea jasotako izapide eta epe guztiak bete dira.

- Hirigintzako hitzarmenak

Udalak ezarrita ditu hirigintzako hitzarmenen administrazio artxibo bat eta erregistro bat.

2015eko ekitaldian, kudeaketa hitzarmen bat onartu zen. Haren arabera, lau lurzati guztira hiri-lurzoru finkatuko 18,5 metro koadro lagako dituzte nahitaez eta doan espaloia bat handitzeko. Haren izapideak Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Foru Legearen erabakietara egokitu zen.





- Lurzoruaren Udal Ondarea

Udalak ez du Lurzoruaren Udala Ondarearen ondasunen inbentariarik, izaera hori duena, bideratua eta bereizia, ez eta hari dagokion Lurzoruaren Udal Ondarearen Erregistroa.

*Lurzoruaren Udal Ondarearen Erregistroa eta Inbentarioa ezartzea gomen-
datzen dugu, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Foru Legeak ezartzen
duen baldintzetan.*

Txosten hau eman da indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, Francisco José Etayo Salazar auditoreak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2017ko ekainaren 5ean

Asunción Olaechea Estanga, lehendakaria

